

4.1. jardun-ildoak - Impulsar la gobernanza multinivel y la gestión por proyecto

Helburu orokorra

Eraginkortasun politikoa, politiken koherentzia eta gobernantza-maila guztien arteko aurrekontu-sinergiak sustatzearen alde lan egin; era berean, sareak ezarri organo politikoaren eta administrazio publikoaren artean, tokian tokiko mailatik hasita Europaraino eta alderantziz, nazioz gaindikoa lankidetzaren indartuz aldi berean.

4.1.1 ekintza Euroeskualdearen erakundearteko foroak sustatzea

Erakunde-erlako Foro bat sortu behar da, eta Foro hori euskarria eta elkargunea izango da mugaz gaindikoa lankidetzaren eremuan dauden erakundeentzat; era berean, lankidetzaren egoerari buruzko aldizkako "argazki" zehatza izateko balio izango du. LLETa buru dela egingo den aldizkako jardueraren horrek ahalbidetuko du 2014-2020 aldirako ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren koherentzia eta eraginkortasuna ematea lankidetzari.

4.1.2 Focus groups/lantalde tematikoak sortzea, lankidetzaren proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko tresna gisa

Lankidetzaren proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko lan etengabeari eusteari begira, zenbait focus groups edo lantalde tematiko abiatuko eta dinamizatuko ditu LLETak. Lantalde horiei esker, Plan honetan estrategikotzat hartu diren askotariko lan-eremuetan garrantzitsuak diren eragileak saretuko dira.

4.1.3 ekintza Ad-hoc talde eragileak sortzea, proiektu zehatzak kudeatzeko


Lantalde tematikoaren eztabaidetatik eta lanetik, proiektu zehatzak garatzeko aukerak sortuko dira. Zehaztapen xeheagoa egiteko eta proiektu horiek abiarazteko nahiz kudeatzeko, talde eragileak eratzea proposatzen da.



4.2. jardun-ildoak - Euroeskualdearen irudia eta presentzia indartzea

Helburu orokorra

Komunikazio Plana aplikatu behar da, eta LLETak tokiko, probintziako, eskualdeko, estatuko eta Europako intereseko gisa identifikatutako sare eta erakundeetan presentzia handiagoa izateko lanean jarraitu behar da.



4.2.1 ekintza Euroeskualdearen presentzia indartzea Europan

4.2.2 ekintza Euroeskualdearen eta LLETaren komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatzea: Urteko foroa